

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Otxandiotik Baionara

Korrikaren 20. edizioaren lehen urratsak ger-tutik bizi izan ditut asteon. Gure herriko ka-leak ilusioz eta etorkizunez koloreztatu di-tuen milaka lagunen uholdean nahasi naiz ni ere. Nahiz Euskal Herri mindu honetako bizidunok ohitu(egi)ak gauden lantzean behin horrelako eztanda emozionalak jasotzera, nire gogo-bihotzak ez daude oraindik zirrara bereziak senti-tzetik salbuetsita –eta hala bedi urte luzeetan!–. Herri honen ilusionistak, su-irensle optimistak, trapezistak, malabaristak, alkimistak, bizirauten espezialistak elkar hartuta pausu biziz, esperantza mezu ezkutu bat euskal herrietatik igaroz, lankidetzan, batzuk nekatu ahala besteei luzatuz lekukoa, etenik gabe helmugaraino. Esan dezagun hau ere: Korrika euskal herrigintza senak eman duen asmakizun bikainenetako bat da, zalantza-rik gabe.

Uholde horren parte izan naizelarik, beste behin ere herri sen indartsu bat sentitu dut arnasestuka, herri ho-nen bulkada transformatzailearen bertsio jatorrena. Egun handiaren azkenetan, estasiaren bihamunean ordenagailuaren aurrean ja-rri naizelarik, zaila da emo-zioei eutsi eta arrazionalta-suna gailenaraztea. Baina aspaldiko kontua da iraul-tzak buru hotzak haina bihotz beroak behar dituela. Eta datozen bi-hiru urteek eman dezaketena imajina-tzeari ekin diot.

Imajinatu dut euskal ber-pizkunde berri bat, euskal estatuen eraikuntzaren au-keraren etalax irekitako eus-kararen eta euskal kulturaren loraldia. Imajinatu ditut prozesu konstituyenteak euskal lurraldeetan: euskal ga-rapen ereduaren, hezkuntza sistemaren, babes soziala-ren, pentsio sistemaren, lan-harreman esparruaren eta komunikazio sistemaren gaineko eztabaida sozial bi-ziak, zeinetan euskal gehiengo sindikala baden nor lan-gileen interesen defentsan. Imajinatu dut herrietan ga-ratzen ari diren egitasmo komunitario eraldatzaileen sarea, Euskal Herria berrikuntza sozialaren esperimen-tazio esparru erreferentziazkoa bihurturik Europa mai-lan. Imajinatu dut gazte mugimendu desobediente in-dartsu bat, “Ez gaituzue exilio ekonomikora kondenatuko! Euskal Herriko kaleetan gelditzen gara bizi izatera, lan egitera eta herri hau eraikitza!” oihuz-tatuz, mende erdiko borrokaren ondarearen jasotzaile

eta ideia profetikoak gauzabidean jartzeko kontzientzia historikoaren jabe. Imajinatu dut euskal iraultza demo-kratiko bat Europaren bihotzean, Euskal Errepublikari ateak parez pare zabalik. Eta imajinatu ditut presoak eta iheslariak Euskal Herriko kaleetan libre.

Uste dut garai bereziotan ezker abertzaleak bertso txikiak alboratu eta bere buruarekin berradiskidetzeko tenorea duela. 1978ko erregimenaren krisiak, Katalunia-ko prozesu independentistaren fase erresolutiboak, es-koziarren bigarren saiakerak edota Ipar Irlandan errefe-renduma ospatzeko aukerak ezin gaitu doluaren hamaikagarren etapan harrapatu. Herri honi zor ga-tzaizkio eta ezin dugu hutsik egin.

Korrikari amaieraren parean iritsiko zaigu beste era-kustaldi baterako aukera. Apirilaren 8an Lapurdi, Baxe-nabarre eta Zuberoako trapezistek, alkimistek, ilusio-nistek armak argitaratuko dituzte. Estatu boteretsuen zikoizkeriari eta epe motzeko interes partidistei gain harturik gizarte zibilak eraitsiko du herri honi aurrera egin ez dezan jarri dioten murruetako bat. Fase politiko

Apirilaren 8an Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako trapezistek, alkimistek, ilusionistek armak argitaratuko dituzte, estatu boteretsuen zikoizkeriari eta epe motzeko interes partidistei gain harturik

honek eskatzen duen tonua eta determinazioa ikusi di-tut bakegintza prozesuetako estandar guztiak hankaz gora jarri dituen ekimen honetan. Berriz ere herrigintza sen miresgarri hori. Bide horretan aurrera, tinko.

Malabaristen, alkimisten, ilusionisten, optimisten ar-tean badago frustrazioan eta akzio-errepresioaren gur-pil zoroan ito nahi gaituen profeta faltsuren bat edo beste ere. KAS alternatiba berrirakurtzeko gonbita luza-tuko nieke profeta faltsuen sirena hotsek liluratutako horiei, eta historia existitu ez den ezker abertzale baten irudiaren gainean berridatzi nahi dutenei entzungor egiteko eskatu. Haustura demokratikoaren alde egin zuen ezker abertzalearen ondare historikoa apirilaren 8an Baionan izango da, Euskal Herriaren eraikuntza de-mokratikoari segida emanez, ilusionisten, trapezisten, malabaristen eta optimisten artean murgildurik. •